

ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

ESPEDIENTE ZK.: 08/09

XEDEA:

GUFeko BEKOETXE ETA ZUBIETE ZENTROETARAKO 2010. EKITALDIKO JANARI ZERBITZUA.

BEHIN-BEHINEKO ADJUDIKAZIOA

EBAZPENA:

GUFeko kudeatzailearen **3834. Ebazpena**, azaroaren 13koa, GUFeko Bekoetxe eta Zubiete zentroetarako 2010. ekitaldiko janari zerbitzuaren kontratua behin-behinean esleitzeko.

BEHIN-BEHINEKO ADJUDIKATARIOA:

- SOZIETATEAREN IZENA:
GASTRONOMÍA VASCA, S.A.
- ADJUDIKAZIOAREN GEHIENEN ZENBATEKO ZENBATETSIA -BEZA KENDUTA-:
184.368,00.-€.

WEB-EAN ARGITARATUTAKO EGUNA:

2009-11-13

ESKATZEN DIREN AGIRIAK:

Kontratu honen preskripzio teknikoen pleguan eta administrazio klausula berezien pleguan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeko 135.artikuluari aurrez ikusitakoarekin bat etorrira jakinarazten dizugu ondoren zehazten den dokumentazioa egiaztatzeko, www.ifas.bizkaia.net/contratospublicos web orrian argitaratu eta biharamunetik, gehienez, hamabost (15) egun balioduneko epea duzula:

- Behin betiko bermea jarri dela egiaztatzen duen dokumentazioa (administrazio klausula berezien pleguko 4. edo 5. eranskina). Behin betiko bermea **11.925,00.-€**-koa da.
- Zerga betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzeko, foru ogasunek eta/edo hala denean, Zerga Administrazioari Estatu Agentziak emandako ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzen duen ziurtagiria edo, hala denean, mutualitateko alta.
- Uneko ekitaldiko alta agiria edo ekonomi jardueren gaineko zergaren azken ordainagiria, eta, hori osatzeko, aipatu zergaren matrikulan baja emanda ez dagoelako erantzukizunpeko adierazpena (administrazio klausula berezien pleguko 6. eranskina). Zerga hori ordaintzetik salbuetsita badago, aipatu zergaren matrikulan baja emanda ez dagoelako erantzukizunpeko adierazpena eta salbuesteko arrazoia adieraziko du (administrazio klausula berezien pleguko 6. eranskina).
- Erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren kopia eta kontratuaren kontratazio-primaren ordainagiria —aseguru horrek alde orokorra, patronala eta amaitutako lanak estali behar ditu—, preskripzio teknikoen pleguan ezarritakoaren arabera.

KUDEAKETAKO IDAZKARITZAKO BURUA,



Sin.: José Luis Camarón Bonacasa.